


**berde-berdea**



**U R A**

**IKASLEAREN  
GALDERAK**



**gizarte ekintza**

## Ura: Galderak

1. Ura oso arazo larria da Lurrean. Zergatik?
  - ☐ O. Ur gutxi dagoelako.
  - ☐ O. Ur gehiena gazia delako.
  - ☐ O. Uraren partetik handiena izozturik dagoelako poloetan.
2. Ura etengabe ari da mugitzen atmosferatik lurrazalera, ibaietara, itsasoetara, lurpera... Ba al dakizu zenbat irauten duen ur tanta batek ibaian?
  - ☐ O. 100 urte inguru.
  - ☐ O. Urtebete.
  - ☐ O. 15 egun.
3. Antzinako Erroman ere ura oso garrantzitsua zela kontuan hartuta, hauetako zein baieztapen da zuzena?
  - ☐ O. 25 akueduktu zituzten ura mendietatik herrietara eramateko.
  - ☐ O. Tiber ibaiko ura zeharo zikina zegoen, eta lehen kutsadura kasuak izan ziren berunezko (oso toxikoa) hodietatik zihoan ura edateagatik.
  - ☐ O. Ura hain zegoen kutsatua, botilakoa hasi zirela saltzen. Oso ezagun egin zen "Roma aquarius" izenekoa.
4. Garapen bidean diren herrialde askotan kutsatuta dago edateko ura. Ba al dakizu, UNICEFen arabera, zenbat haur hiltzen diren urtero ur kutsatuak eragindako beherakoengatik?
  - ☐ O. 5.000 haur.
  - ☐ O. 2.000.000 haur.
  - ☐ O. Ezta haur bat bera ere. Beherakoak ez du, dagoeneko, heriotzarik eragiten.
5. Industriak, oro har, ur behar handia du. Ba al dakizu hauetariko zein industria jardueratan gastatzen den gehien?
  - ☐ O. Litro bat gasolina lortzeko.
  - ☐ O. Kilo bat altzairu egiteko.
  - ☐ O. Kilo bat paper egiteko.
6. Badakizu zenbat araztegi eraikiko diren Gipuzkoan etxe eta industrietatik datozen urak garbitzeko?
  - ☐ O. 6 eraikiko dituzte Gipuzkoako ibai nagusietan.
  - ☐ O. 14 eraikiko dituzte.
  - ☐ O. Ez dira bat bera ere eraikitzen ari.

## Ura: Galderak

7. Nola garbitzen dute hondakin ura araztegietan berriro ibaira edo itsasora bideratu aurretik?
- ☐ O. Kloroaren bidez.
  - ☐ O. Iragazkien bidez.
  - ☐ O. Iragazki eta bakterioen bidez.
8. Zenbat petroliontzik zeharkatzen dituzte Espainiako itsasoak, Greenpeacearen arabera?
- ☐ O. 100etik gora.
  - ☐ O. 1.000tik gora.
  - ☐ O. 5.000tik gora.
9. Txorrota ura oso ona izan arren, gero eta gehiago edaten dugu botilakoa. Ba al dakizu zenbat aldiz garestiagoa den botilakoa?
- ☐ O. 15 aldiz.
  - ☐ O. 150 aldiz.
  - ☐ O. 1.500 aldiz.
10. Ez da komenigarria erabilitako olioak sukaldeko harraskatik botatzea, kalte egiten dio-eta ingurumenari. Ba al dakizu, baina, zein kalte mota eragiten dion?
- ☐ O. Toxikoa da barnera dezaketena izaki bizidun askorentzat: landareentzat, krustazeoentzat, arrainentzat...
  - ☐ O. Energia alferrik galtzea da, desegokia guztiz gaur egun.
  - ☐ O. Geruzatxo mehe bat sortzen du uraren gainean, eta horrek, airea pasatzea eragoztearekin batera, uretako izaki bizidunei arnasa hartzea oztopatzen die.